

# ANAITASUNA

257. zenb.

1973.eko ekainaren 30ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5  
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

## Bilinguismoa eta Ideologia

Orain dela bi hilabete Aratz-ek bere artikulu eder batetan esan zigunez, Soziolinguistika Euskal Herrian karamila\* berria dugu. Arlo berari jarraikirik, hizkuntzaren azterketa soziologiko baten ondorioetan sakondu nahi nuke.

H. Mendras-en hitzetan «analisi soziologiko bat, analisi ideologiko bat izan behar da beti». Egungo\* gizarte kapitalistek, ofizialtzat, gertaera konkretuari atxikitzen\* zaion soziologia bat onhartzan dute soilki. Azterketa ideologikoak, «baliozko judizioak» besterik ez direla esaten ohi dute gure teknokratek. Hobeki esateko, ideologiaren heriotzaren atzean, ezinezkoak ditugu azterketa ideologiko guztiak.

Hala ere, ideologiak presente daude. Dakigunez, hutsune ideologikoak klase nagusiaren ideologiez laster betetzen dira. Ez dago neutraltasunik.

Soziologia zientifiko bat, hein\* enpiriko baten ondoan, hein ideologiko bat lortzearen beharrean dago. Ideologiak, estrukturak (orotasun organikoak) dira; eta haien elementuak (mythoak, irudiak, estereotipoak) harremanetan dute elkarrekin. Soziologiak hauxe esan behar digu: zeintzuk diren elementuok eta horien arteko harremanak.

Soziolinguistikaren eginkizuna, horretaz,\* nabari\* agertzen zaigu: Hizkuntza baten egoera objetiboa (hitzegileen zenbatekoa, dialektu geographiko eta sozialak, komunikabideen oinestruktura, **mass media**, eta abar) eta subjektiboa (hizkuntza horren aurrean hitzegileek duten jarrera\*) jakin erazi behar digu.

Egoera objetiboaren mailan, nahiz eta asko ez izan, lan oso interesgarri batzuk egin dira Euskal Herrian (zailtzarrik gabe, GAUR taldearena dugu interesgarriena). Ideologi mailan, zoritxarrez, gure ezkertiarren kritika desmythologizaleak, euskal ideologia ethno-linguistikoa abertzale-burjestzat salatu duenean, hain abstraktu ez den bere internazionalismoaren oinharri ideologikoak ahanzi ditu.

Mendebaldeko\* herrialde haundietan, Europan bereziki, ezkerreko alderdiak ethnia ttikien alienazioari eran-

tzuter saiatzen dira. Baina haien gizarteetan nagusitzen den ideologiak (beren **aleman ideologia**-n Marx eta Engelsek esana zutenez, «gizarte bateko ideologia nagusia, klase nagusiarena da») haien programma politikoak baldintzen ditu, «substratum» bat bezala. Honetara,\* Robert Lafont irakasleak, «La Révolution Régionaliste» izeneko bere liburuxkan (Gallimard, Paris, 1967), Frantziako eskualdeetako\* ezkertiar askok, zentralizatutako Frantzia horretako errealitatea naturaltzat onhartzan dutela idatzi zuen.

Euskal Herriko ezkerrek kontzientzia ethnikoaren alienazioa sufritzen du, «substratum» horren kausaz. Gure iraultzaileen programma batzuen eta Villar Palasí jaunaren esaldien artean diferentziarik kasik ez dago. Maizenik\* erabiltzen duten kontsigna, euskara defendatzeko, «maila guztietan bilinguismoa!» da. Heziera\* eta Zien-



## Bilinguismoa eta Ideologia

tziako ministrua bera ere, «bilinguismoaren bidea» irekitzeko prest dugu.

Problemá\* bestea da, eta bi deklarazio hauk,\* ministruarena eta iraultzaileena, ideologikoak dira. Ez dira gauza, egungo **status**-a aldatzeko. Zeren\* Euskal Herriko gaurko egoera linguistikoa bilinguismo hutsa baita. Baina, Aratz-ek seinatu zuenez, bilinguismoa ez da inoiz neutrala, **diglossikoa** baizik; hau da, hizkuntza bat (erdara) goiko mailetan (harreman ekonomikoetan, kultura gorenean, komunikabide ofizialetan) erabiltzen da, hots,\* arazo publikoetan. Bestea, berriz, etxeko bizitzan, erlijioan, arazo pribatuetan.

Euskal Herriko bilinguismoak berekin euskararen pobretasuna eta euskaldun alienazio linguistikoa ekarri ditu. Euskaldunok ez dugu bilinguismorik behar, euskararentzako bultzada haundi bat baizik. Euskal Herrian bilinguismoaren alde egotea, diglossiaren alde egotea besterik ez da.

Gure ezkertiar askorentzat, dirudienez, euskararen egiazko aurrerapen baten alde burukatzea, abertzaletasun burjesera bihurtzea da. Beldur horrek, kakoa non dagoen ikustea eragozten die. Hortik haien programmetako epeltasuna, ezintasuna...

Francesc Vallverdu linguistak, bere liburuxka eder batetan (**Ensayos sobre el bilingüismo**, Ariel, Barcelona, 1972), gure ezkertiarrek irakurri ez bide\* dituzten Leninen esaldi batzuk ipintzen ditu, Georgiako arazoei buruzko esaldiok, hain zuzen: «Errusiaren nazioarteko desberdintasuna ez da berdintasun abstraktu batez desagertuko, zapal dutako herri ttikien aldeko desberdintasun batez baizik».

Gure kasuan euskararen problema desagertzeko, ez dugu behar «bilinguismo» bat (zer ote dugu, ba?), euskararentzako abantail\* berezi eta konkretu batzuk baizik.

GANIX JUARISTI

daude, dagoz  
die, deutse  
digu, deusku  
zaigu, jaku  
zaio, jako  
zigun, euskun

### ANAITASUNA Bizkaia Hamabosterokoa.

**Zuzendari ordezko:** Imanol Berriatua.

**Bulegoa:** Pelota, 4-1.º - Bilbao-5.

**Imprimatzaile:** AMADO, Mazarredo, 35 - Bilbao-10.

**Moldatzaile:** RALI, Particular de Costa, 12-14, 3.º - Bilbao-10.

**XXI. urtea.**

D.L.: BI-1.753 - 1967.

# Gure argitaldari baten arinkeria eta Unamunoren astakeria

ANAITASUNAren 254. zenbakian Armendaritzi irakurri diodana hola bada —hots,\* «Auñamendi» argitaldaria Unamunoren idazki bat zabaldu duela H letraren kontra egina— sinestu ezinezkoa zaigu, seriotzat genuen argitaldari hori nola eror\* zitekeen holako arinkeria batean.

Baina Unamunok holakorik H letragatik bakarrik ez zuen esan; K letragatik ere antzerakoak esan zituen. Baina «Auñamendi» argitaldariko lan batzuetan («zabal-kunde»koetan maizago\*), erdaraz idatzitako liburuetan ere Euskal Herriko izen batzuk K letrarekin ikusi izan ditugu. Eta, hemen, Unamunoren arinkeria «Auñamendi»ren astakeria bihurtzen da.

Adibidez, Unamunok K-ri buruz idatzi zuena agertuko dugu; eta, arrazoiak antzerakoak izanik, ea nor ausartzen den K gabe euskaraz idaztera. Argitaldari horrek bere enenplua eman nahi badu, ez du K-K gutti kendu beharrik.

Jose M. Etxebarria Zirarruista jaunak duen gutun\* batean hara zer dioen:

**El Rector de la Universidad de Salamanca. Particular.  
Sr. Dn. L. de Aleen.**

Muy señor mío: ¡Qué más quisiera yo que poder colaborar en todas las publicaciones que me lo piden! En cuanto a Kosmos —cuya K no me lo explico bien— le he de decir que, en efecto, ni bebo más que agua ni pruebo apenas la carne —pescado, huevos, leche, etc., sí— pero es por motivos higiénicos y de salud. Conocía a un borracho empedernido que se llamaba vegetariano, añadiendo que el vino es un producto vegetal, en lo que creo que no andaba descaminado.

Mi kakekolerismo no va unido a elucubraciones de K y de estrella de cinco puntas y demás cosas cabalísticas. Que, por lo demás, respeto y hasta me divierten.

Ahora lo que desde luego pueden ustedes hacer es entrar a saco en mis obras y tomar de ellas los pasajes que les convenga, y yo muy honrado y agradecido. Pues no faltaba más!

Queda suyo afmo.

Salamanca, 23-III-22.

Miguel de Unamuno

Guttienez, haren lanetan «a saco» sartze hau ongi ikusi dugu, «Auñamendi»koei eskerrak.

Unamunoren gutun hau ikusi nahi duenak, begira dezala «Eusko-Jakintza», VII (1953-1957), 128. horrialdean. Bertatik konturatuko da, gure asmakizunezkoa ez dela. Eta ohartuko da, Unamunok era askotako astakeriak esan zituela.

«Auñamendi»koek «memece» por entrega» muntatu badute, hurrengo batean K-ri buruzkoa ere zabalduko dutelako ustean gelditzen gara.

OLAKO

dezala, daiala  
diot, deusku

zaigu, jaku  
zitekeen, eitekean

# IKASTOLAK NORENAK DIREN

## IKASTOLEN SORRERA

Hala gerra aurretik, ikastolak hasita zeuden zabaltzen. Baina gerra ondorenak ito egin zituen.

Hala ere, Euskal Herriak ikastolen beharra ikusten zuen; eta ez da geratu, sortu eta herri gehienetan zabaldu arte. Zergatik eta zertarako zabaldu ziren?

Zalantzarik gabe, Euskal Herriak ikusi egiten zuen, bere lurraldeetan erdal kultura bakarrik zabaltzen eta ugaritzen zela. Hau makilada bat ematea zen Euskal Herriaren nortasunari. Bien bitartean, euskara eta euskal kultura geroago eta urrutiago zihor, eskoletatik.

Nahiko zailtasunez, ikastolak zabalduz joan dira poliki poliki. Behin baino gehiagotan iritxi ziren ikastoletako ateak hixteko aginduak.

Zabaltzerakoan zailtasunak handiak izan baziren, oraingoak ez dira makalagoak: tendentzia asko, nor bere aldera eraman nahi, batzuk alde, beste asko aurka; honelakoak izan behar dutela, bestelakoak izan behar dutela...

## NORENAK IKASTOLAK?

Batean eta bestean, eztabaida gogorak sortu dira galdera honi buruz: Norenak dira ikastolak? Galdera honek beste hau dakar: Nork parte hartu eta zuzendu behar du ikastola?

Erantzunak hiru izan dira bereziki: Ikastolak gurasoenak dira, herriarenak dira (beraz, denek hartu behar dute parte, ez gurasoek bakarrik), eta Elizarenak dira.

## ERITZI! ETA JOKABIDEAK

Ikastolak gurasoenak direla diotenek, honela egiten dute plan-teamendua: Haurrak gurasoenak dira; beraz, haur hoik doazen ikastolak ere, gurasoena izan behar du.

Ondorenez, batzorde eta ikastolako Batzar Nagusietan gurasoek bakarrik parte hartuko dute hitzez eta hautarkiz. Laguntzaileak, diru edo limosna emaile besterik ez dira. Eta irakasleak gurasoen menpean gelditzen dira, hitzik eta nortasunik gabe.

Jokabide honen aurka, beste hau joaten da: Ikastolan denek hartu behar dute parte: «sorreran eta mantenimenduan denek hartu genuen parte... gaur haurrik eduki ez arren, bihar eduki dezaket, eta axola zait nolakoa den ikastola hori... denon artean sortutakoa, banaka batzuen eskola 'partikularra' egitea ez dago ondo...» (Beste arrazoi asko hurrengo batetan aztertuko ditut).

Hauen ustez, guraso, laguntzaile eta irakasle, denek parte hartu behar dute, bai ikastolako batzordean, bai Batzar Nagusian. Denen artean elkartasun bat sortu behar da, ikastola aurrera eramateko.

Bestalde, Eliza gehiago azaldu da bere jokabidez, hitzez baino. Ikastola askok erabiltzen dituzten lokalak bereak direla, edo ikastola Elizaren babesean dagoela eta, sarritan jaso du eskua agintzeko. Esan eta adierazi ere bai: «Hori egiten baduzue, kendu egingo dut neure babes...».

Baina pentsatzekoa da ondorengo galdekizun hau:

Zergatik daude ikastola asko Elizaren menpean? Sortzaileek horrela nahi izan zutelako, ala, mementoko legeari erantzuteko, haren laguntza eske joan zirelako? Eta horrela izan bada, zer jokabide hartu behar du Elizak: egoera hori bere onerako probetxa ala sortzaileen esku utz?

UGARTE

# Psikologi Ikasketa eta Gurasoak

Hamabost egunez behin biltzen gara, psikologi pixka bat ikasteko, Goiherriko andereñoak. Lan hau egiteko, 30-35 andereño-irakasle izaten gara klasean; hots, eskualdeko guztiak biltzen ez bagara ere, herri guztietarik beti etortzen da norbait.

Lana era honetan egiten dugu: Gai honi buruz jantzirik den pertsona batek, hitzaldi gisa edo, psikologiazko zenbait puntu esplikatzen du. Bestalde, nahiz eta gaiok premiazoak izan, ez dira hain interesgarri gertatzen gehienetan. Baina, arrunt xeheturi eta erraz hartzeko moduan ematen direnez, aski praktiko eta atsegin zaigu klasea. Aztertzen ari garen puntu bakoitzari doakion esanplu bat edo beste aipatzeak asko errazten du lana, ez da dudarik.

Honetaz gainera, gaia hobeto sakontzeko eta menperatzeko, irakasleak haren laburpena ipintzen du gure eskuetan alde aurretik, norberak bai bakarka eta bai taldeka herri mailan berriro aztertzeko eta areago mamitzeko.

Lan hau ez da hemen bukatzen, ez da andereñoetan amaitzen, baizik eta haurretara nahiz gurasoetara zuzen daiteke. Haurretara —nola ez?—, berauekin ditugun eguneroko harremanak sakonagoak izan daitezke, haurra hobeki ezagutzeko eta lantzeko.

Eta gurasoetara, berriz, zenbait herritan, hitzaldietan jasotzen den guztiaren berri zehazki haiei adierazteko, honela, elkarrekin egin behar dugun lana asko errazten delarik. Niri lagokidanez, behinik behin, hala dela esan behar dut.

Hauk izan dira, oraingoz bereziki aztertu ditugun gaiak:

a) **Haurra konpreni ezina.** Izan ere, askotan, haurra pertsona heldu bat balitz bezala hartzen dugu, eta arazo asko sor daiteke hemendik: haurrak eginiko edozer huskeriaz haserretzen baikara, nori zergatik egin ote duen aztertzen jarri gabe. Are gutiago ikus ditzakegu psikologiazko arrazoiak.

Honek argiro adierazten du, helduon eta haurren arteko harremanak jeneralean afektibitateak domeinatzen dituela, eta ez konprentzio edo ikuspegi objektibo batek.

b) **Haurren pentsamenaren bereizgarri zenbait.** Adibidez, esanplu batzuk bitarteko direlarik, ongi ikusten genuen, haurra bere inguruko gauzakiakin nahiz izakiakin identifikatzen dela. Honela, gauzaki hoik bizidun bihurtzen ditu. Fase animista deitzen zaio honi psikologian. Abereak, ordea, pertsonatzat hartzen ditu maiz: askotan haurrak. Totemismo delako fenomenona deritzaio honi.

Hau honela, helduok dena logikaz ikusten dugu, eta haurren mundua —bere lehendabiziko urteetako fantasiako mundua, alegia— arrunt zaila zaigu aditzen. Geroago, prelogiko deritzaion fasean sartzen da haurra, eta fantasia eta errealtatea ez ditu bereizten, nahasten baizik. Zatia osotzat hartzen du, adibidez; aski du amaren jantzia edo soinekoa, ama bere hurbilean duela sentitzeko.

Ez naiz aurrera jarraituko gaur. Soilki hauxe esango nuke, haur ttipiak hazten eta hezten ari den guraso edo andereñoarentzat: egiaz eta benetan beharrezko zaigula gauza hauen berri jakitea, eta horretarako, jakina, zertxobait ikasten saiatzea.

B. AZPIRO.

dezaket, daiket  
ditzakegu, daikegu  
zaigu, jaku  
zaio, jako

zait, jat  
zeuden, egozen  
zihoan, joian



## MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas  
tresnak, Igeritekoak, Uretako Jan-  
tziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI  
Muelle de Uribarte, 15

BILBO-1

# Aita Goena eta "Giza-Bizia"

Karlos Goena jaunak txartzat hartu du, dakusadanez,\* egin nion kritika. Irigaray jaunak ZERUKO ARGIAN egin ziona, segur aski, maiteagoa duke.\* Ez noa ni horretaz etengabeko eztabaidetan sartzera, kolore, gustu eta eritzien arloan —eta Euskal Herrion gutiago— nekez etor baikaitezke batera. Hala ere, zenbait puntu, argi utzi nahi nituzke betiko.

Lehenik. Zeharo konforme nago, eta horretan arrazoi osoa ematen diot aita Goenari, behe mailako hiztegia egiterakoan goiko mailak ere kontuan —eta ondo kontuan— hartu behar direlakoan, gero nahasketarik sor ez dadin. Baina nik nioena besterik zen: Euskaltzaindiak ikastoletarako moldatzen duen hiztegittoa —apala bezain premiazkoa— multikopia triste batzuetan zabaltzen ari den artean, bestek, gaur egun Euskal Herriak inondik ere sentitzen ez dituen premia batzuk betetzera (!?) datarren obra ezofizial eta partikular bat luxu osoaz publikatzeak ez duela justifikaziorik batere, Aurrezki Kutxa batek eta agintari batzuek «euskararen alde» zenbat egiten duten agertzeko ez bada. Eta Goena jaunak ba daki zertaz ari naizen.

Bigarren. Ez ditzagun gauzak nahas. Aita Goenak **Batasunaren Kutxa**-ri definizioetan akats batzuk topatu dizkio. Honetan ere guztiz batera nator berarekin. Neu naiz, izan, obra horretako gauza askorekin orain konforme ez nagoen lehena. Baina gauza batez ahortzi\* zaigu. **Batasunaren Kutxa**-n izenen esplikazioa **lagungarri** huts bat zen, «guti gorabehera»ko azalpen huts bat, hain zuzen ere, eredutzat (!) jarritako forma orthographiko batu edo batu usteko batzuek zertsu\* esan nahi zuten adierazteko. Modu berean daude Arantzazuko hiztegian zenbait hitz: **ar: emea ez dena.**

Inongo hiztegi ez du ematen, bestalde, definizio «zehatz bezain ulergarri» bat: halako puntutaraino, non Frantzia jadanik\* hiztegi asko **esanguraz** gabe, **exenpluz** eta hitza erabiltzeko moduz argitaratzen baitira. Hemen doakio Goena jaunari, kasu, erdal hiztegi batek **anchoa** hitzaz dakarrena: **anchoa o boquerón: Nombre vulgar del Engraulis encrasicolus, pez de la familia de los Engraulidos (Teleósteos). De 8 a 16 cm. de longitud. Habita en el Mediterráneo y en el Atlántico. Comestible fresco y en conserva.** Guztira: «itsasoko arrain mota bat» bezain argigarri, gehienontzat.

Hirugarren. Jakina, **B. Kutxa**, definizio kontuan, aitarik, amarik eta aitzinekorik gabeko euskal hiztegi bat zen, euskara hutsez lehenengoz moldatua; daduzkan akatsak, beraz, esplikagarri dirateke\* berez. Aita Goenak, ordea, eta bere konpainian bertan —Larramendigan hasi, Olabidegandik eta beste zenbaitengandik iraganenez\*—, gisa bereko hiztegi «garbizale» asko ukan\* ditu aurrean, bai eta horiez egindako kritika zorrotzak ere; horregatik, konpainikideenganako fidelitasuna gorabehera,\* aurrekoen oker berean erortzea\* ez dateke\* hain barkagarri.

Laugarren. Ez dugu ulertzen, egia aitortuz, nola alde-ra\* daitekeen, bestetik, erdal-euskal hiztegi bat euskal-euskal hiztegi batekin, duten diferentzia bistan baitago. Ala, definizioez ari delarik, guk oker aditurik, haren hiztegia ere euskal-euskal hiztegitzat hartu behar ote dugu, eta **músculo esternocleidomastoideo** euskaraz **nola** den gabe, **zer** den esplikatzeko, «mastoide ta bular-larako

gihar» dela diosku? Horrela bada, zerrenda horik\* medikuntzako hitz nazioartekoen «azalpenak» baldin badira, orduan bai, orduan **B. Kutxa**-koa baino lan askoz bikainago bat egin duela ezagutuko dioket, etymologiak ederki ematen baititu.

Bostgarren. Barkatuko dit, zinez\* diotsot, ikastoletako haurrek —eta Unibertsitateko ikasle gehienek ere— hiztegi ezofizial horretatik zer onik atera dezaketen oraindik ez badakusat.\* Textu libururik apalenak ez daudenean holakoekin hastea, orgá\* idien aitzinean\* jartzea dela esanen nuke. Ontzat hartzen diot, bai eta hiztegi teknikoak egitea pertsona adituen zeregina delakoa ere. Noski, teknika horretan eta **euskararen** adituena, ez pertsona partikular eta bakar batena; gutiago oraindik euskararen **ñabardurak\*** ongi berezten\* ez dakien batena. Horrela ez zen gertatuko, gorputza gabe gorpua aztertzen ari garelarik, **Giza-Bizia** izena duen liburu baten barrenean **Giza-Heriotza** aipatzea.

Oso kuriozoso da, azkenez, Goenaren obraren alde jarri den mediku Mokoroazale purrukatu batek, Mokoroak berak —eta medikuntzaz, hain zuzen— bere liburuan esan zuena gogoan ez edukitzea. Ni neu aita Mokoroarekin, euskarak zientzi gaietan eduki behar dukeen\* zereginarekiko, oro\* har, inoiz konforme egon ez banaiz ere, arrazoa ematen diot, gutienez, «gaur egun arlo batzuk beste batzuk baino premiazkoagoak zaizkigula» dioenean. Eta medikuntzaren hiztegia —politika-, ekonomia- eta psikologiarenak ez bezala— hizkuntza guztietan izaten da eguneroko bizitzarekin zerikusirik gutien duena. Eta hortik hasi behar omen genuke, dantzugunez.\*

Sortuko ahal zaizkigu hiztegi hobeak eta premiazkoagoak! Zeren,\* oraintsu berriro dakusadanez, euskaldúnok punta batetik bestera saltoka ibiltzeko joeratzea baitugu, fandangoan bezala. Jakin beza aita Goenak, nik neuk neure aldetik arazo hau bukatutzat uzten dudala, berak oraino, segur asko, esateko dituenak esan arren. Eginen\* nuke, bestalde, kasuistika kontuan, berak nik baino maisu askoz ere bikainagoak ezagutu dituela, batere dudarik gabe. Erabili dugun gaia argiroegi dagoela uste dut, are\* buelta gehiago eman gabe ere.

XABIER KINTANA

beza, **bei**  
daude, **áagoz**  
dezakete, **daikée**  
dioket, **deuskiot**  
diosku, **dinosku**, esaten digu  
diot, **deutsai**  
diotsot (diotsat), **dinotsat**,  
esaten diot  
dit, **deust**  
ditzagun, **daiguzan**  
dizkio, **deutsoz**  
nioen, **esaten nuen**  
nion, **neutson**  
zaigu, **jaku**  
zaizkigu, **jakuz**  
zion, **eutson**

# Neure lantokitik

## JOAN XXIII.a

Aita Saindu Joan XXIII.aren heriotzatik hamar urte pasatu dira; eta urteburu honetan egoki da haren izena ANAITASU-NARA ekartzea, bera izan baitzen, Elizari arnasa berri bat eman nahi izan ziona, eta «aggiornamento» horretan lan egiteko deia mundu guztiko kristauoi egin ziguna.

## NAZIM HIKMET

Turkiar poeta honen heriotzaren hamargarren urteburua bete da, eta haren omenez hainbat biltzar eta erakusketa antolatuta dira munduan zehar. Hauen artean aipatu behar dugu, Parisen ekainaren\* 2an egin dena. Bertan presentatu ziren Hikmeten lanak.

Hikmetek bere lanik handiena Bursako presondegian idatzi zuen. Haren zenbait poema LUR editorialak euskaraz argitaratu ditu, Gabriel Arestik itzuliak.

## FRANZIAKO SINDIKATUEN BILTZARRA

Egin hauean egin da Frantzia, Nantes-en, C.F.D.T.ren 36. biltzar nagusia. Edmond Maire-ren hitzaldiak arrakasta\* handia eduki du, txalo luze eta beroak lortuz. Gogorki salatu zituen komunisten sasi-zientifikotasuna, intolerantzia eta sektarismoa, herri demokratiko guztietan lehenago baztertu eta azkenez apurtu egiten baitituzte komunistak ez diren sozialista alderdi guztiak. Botoetara eramanez, Maire-ren adierazpenak 20.279 (% 87,62) boto alde lortu zuen, eta 2.864 (% 12,38) kontra.

Karguen berriztatzean, Edmond Maire izendatu zuten C.F.D.T.ko «secrétaire général» kargurako, 21.950 boto haren alde emanez.

## ZIGOR DESEGOKIA

Judua eta Rusiako zientzi akademikoa den Veniamin Levitch-ek, Israelera joateko baimena eskatu du. Dirudienez, Rusiako agintarici ez zitzairen atsegin izan akademikoa eskari hau, eta zigor desegoki batekin erantzun diote.

Martxoaren 16an, haren semea, zientzietan doktor eta hondeteko\* handitsu\* batez joa, Tiksy-ra, Siberiako iparraldera eramanez, soldadu soil bezala soldadutza egitera. Ideologia guztietako hainbat europar jakintsuk eskariak bidali dituzte Moskura, zigor desegoki hau baztertua izan dadin.

## IKASTOLAK

Baina indarkeria ez dago bakarrik gure mugetatik kanpora. Etxean ere ba dugu.

Ikastoletako barne burrukak, zoritxarrez, ez dira amaitu. Oraino Deustuko ikastolako arazoa konpondu gabe dagoelarik, orain Ondarroako ikastolari tokatu zaio.

Noiz arte ibili behar dugu honela? Ene ustez, ikastolak dauden egoeran, oso kaltegarriak dira horrelako burrukak.

Herri bateran ikastola bakar bat badago, ikastola horrek GUZTIENA izan behar du, hau da, ideologia guztietako gurasoi zabaldua, eta bai zuzendaritzan eta bai hezkuntza\* arloan zabaldua, gurasoen eritzi desberdinak kontuan hartuz eta errespetatuz.

Baina eskuineko eta ezkerreko muturrekoek indarkeriaz nahi dute, antza, ikastolak kontrolatu; eta, ene ustez, hori ez da zuzen jokatzeko. Herri bakoitzean ideologia bakoitzekoek be-

ren ikastola partikularra eraikitzeke posibilitatea balute, ez nuke ezer esango. Baina posibilitate hori ez dagoenez, ikastola bakar bat dagoen herrian, ikastola horrek GUZTIENA izan behar du.

Beraz, dei bat egin nahi diet kolore guztietako zapaltzaileei, beren zapalketak alde batera utzirik, ikastolan giro zabalago bat sortera deitzen eskatuz. Guztion artean indartu behar ditugu, dauden ikastolak; eta etorriko da, ideologia bakoitzak bere ikastola moldatzeko aukera izango duen eguna.

Dei hau zapaltzaileei bereziki egiten diet, zeren\* ez baita zilegi,\* zapalduoi (ni ere Deustuko ikastolan zapalduen artean nago) geure buruak gehiago makur ditzagun eskatzea, zapaltzaileek eta amoregingaitzek\* beren gogortasuna biguntzen ez duten bitartean.

Ikastolak aurrera eramanez behar ditugu; baina burrukekin eta gogortasunekin hondatu besterik ez ditugu egingo. Elkarren arteko konprentzioak bakarrik salba ditzake ikastolak.

XABIER GERENO

dezaten, **daien**  
diet, **deutset**  
diote, **deutsoe**  
ditzagun, **daiguzan**  
ditzake, **daikez**

zaio, **jako**  
zigun, **euskun**  
zion, **eutson**  
zitzairen, **jaken**

INFORMACION TURISTICA



**GUIA DEL PAIS VASCO**  
**GUIDE DU PAYS BASQUE**  
**BASQUE COUNTRY GUIDE-BOOK**  
**EUSKAL HERRIKO GIDALIBURUA**



Prezioa: 200 pezeta

Eskatzekotan:

- Euskal Herriko edozein liburutegi
- Distribuidora «San Miguel»  
Alda. Urquijo, 60-6.º, izqda.  
Tel. 23024 - 424498
- Nahiz zuzenki: Tel. 358044 edo 355263

# Gure Munduko Albisteak


## El Corte Inglés-en euskaraz

Aspaldion bala-bala dabilan berria da —eta, dazagunez,\* AGUREko basajaunak berak ere jaso du— El Corte Inglés-ek bere saltzaileentzat euskarazko ikastaro batzuk\* egin erazi dituela, euskaraz egiten duten bezeroei\* bertoko jatorrizko hizkuntzan egin ahal izateko. Hori duk hori merkatal\* bista argi bat edukitzea!

Oso ideia bikaina dela ezin uka, eta gure aldetik bihoazkio El Corte Inglés-eri gure zorionik sentituenak. Horrelako ekintzekin —duda gabe, gehiago saltzeko asmatuak—, euskarari merkatal balio positibo bat ematen zaio, eta hori ezin hobeki datorkigu. Agian,\* beste batzuei, erdarazko esaerak dioena esan beharko genieke: «Kanpotik etorriko da, etxetik botako zaituena».

## Urte ona erlazaintzat

Bai horixe! Aurtengoa oso urte ederra izan da erleentzat, eta, beraz, berauen erlazaintzat. Udaberri euritsu eta eguzkitsu bat ukan\* dugu, eta ondorioz nektar eta ezti asko. Maiatzaren azken egunetan, udaberriko loreez eginik, berrogei kilo ezti baino gehiago zedukatèn erlauntzak ikusiak gara. Sasoi berean, erlauntzetan lekurik eduki ez eta, lehen erlakumeak hasi dira irteten.\*



Erlazainei kontseilu bat ematekotan, hauxe izanen litzateke: atera diezaietela erleei ezti gehiegia lehen bai lehen. Honetara\* ez dute erlakumerik galduko, eta, udan eguraldi ona egonez gero, beharbada udazkenerako beste ezti pila bat jasoko dukete\*.

## Euskal Idazleen Elkartea

Literatur hizkuntzaren batasuna oso aurreraturik dago, bai horixe; eta puntu printzipalenak Euskaltzaindiak berak erabaki edo erabakitzeke ditu, horretarako dituen batzordeen bidez. Lan txalogarria benetan.

Hala ere, ba daude oraino bestelako arazo asko, memento honetan Euskaltzaindiaren arlotik landa\* gelditzen direnak, hala nola: esanguren finkatzea, synonymoen berreztea,\* hitzen «kultur giroa» erabakitzea, teknika eta zientzia espezializatuen hiztegia eratzea e.a. Arlo hauetan E.I.E.ak lan bikain bat egin lezake, bere kideen artean horretarako batzordeak eratuz eta, behin lan konkretuak burutu ondoren, Euskaltzaindiari proposamendu horik\* bidaliz, beronek, beharko liratekeen ikutuak eginda, onhar ditzan.

Osterantzean\* ere, E.I.E.ak idazteko joera batzuk finka litzake nahiko arin, euskara standard bat agudoago\* lortzeko. Komunikabideak geure eskuetan ez ditugularik,

idazleok zerbait egin beharko genuke geure hizkuntza ahalik eta lasterren biribiltzeko, orain arte puntu batzuetan dagoen erdianarkhia hau gaindituz.

Oinharrizko lanok bete ondoren —alegia,\* hizkuntza eredia\* bateratu eta gero—, literatur eskola baten barranean stylistika eta tankera\* kontuan ere lan egin beharko dukegu, euskará literatura moderno baten adierazpide zalua\* eginen badugu bederen.\*

Politikan dituzkegun eritzi ezberdinak ez lirateke oztopo batzuk izan behar horretarako, Euskal Idazleen Elkartearen helburua hizkuntza eta literaturaren inguruan bai leudeke, ideologi kontuan idazle bakoitza —bere erantzunkizunaren pean— guztiz libreza izanki.

## Bilboko aparkalekuen problema

Bilboko udaletxeak,\* Ierro bikoitzetan aparkatzen duten automobilisten kontra, 500 pezetako multa berri bat jartzea erabaki du. Horretaz José María Portell kazatariak\* galdera hau egiten zuen oraintsu *Gaceta del Norte*-tik: «Modu horretan aparkatzen duten automobilistek, aparkaleku egokirik balute, beste horrenbeste eginen lukete?». Egia esan, behar diren aparkaleku berriak egitea baino erraxago du udaletxeak multak ipintzea... eta, dirudienez, ekonomikoago, 1971.ean multetatik ia 15 milioi pezeta atera zuen eta!

## 1973.eko Tolosa Saria emateke

Aurtengo Tolosa Sariaren mahaiburukoek, A. Lertxundik, E. Zaldibiak eta J. Intxaustik, presentaturiko bi lanek oinharriak behar bezala betetzen ez zituztela eta, Sari hori aurtengoz emateke\* utzi dute, lehen bai lehen beste sari-dei bat egin dadin eskatuz. Sariaren gaia ikastoletarako testu liburuak ziren.

## IKASekoen kultur ekintzak

Jean Haritschelhar jaunak igorririk,\* IKAS elkartasunaren informazio boletina jaso dugu, frantsesez, irakurleei, laburturik, ematen dieguna.

Ipar Euskal Herriko eskola eta irakastegietan, Baionako 2 lizeotan eta Donibane Lohitzuneko lizeo batetan ezik, eta azken honetan erdipurdika besterik ez, ez zaie hurrei batere euskararik irakasten, partikulazki egindako eskabideak gorabehera.\*

Azken hauteskunde\* politikoak zirela eta, IKASek kandidatu guztiei eskari bat egin zien, hautatuak izanez gero, euskararen alde zerbait egitera konprometa zitezen. Alderdi Komunistako bi kandidatuek ezik, beste guztiek beren baiezkua eman zuten. IKASek Inchauspe eta Marie jaunei gutun\* bana bidali die, Hezierako Ministerioan gestio batzuk eginez beren hitza bete dezaten eskatuz.

Ondoren, Udako Euskal Unibertsitateaz, Euskal ikastaroez, Baionako Merkatal\* Feriako Euskal Kultur egunaz, Pedagogi gaien pres-taeraz eta irakasleen bilerez informazio labur bezain interesgarri batzuk dakartza.

Azkenean, IKASek euskararen eta euskal kulturaren alde eskatzen dituen 7 puntuak azaltzen dira, euskara ikasi nahi dutenentzako informazio bikain batez amaitzeko. Ba dakusagu,\* pozik ikusi ere, iparraldeko anaiak ez daudela lo. Ekin gogor, ba!

## San Miliango bilera, noizko?

Dakikegunetik,\* ihaz Euskaltzaindiak, simbolikoki, Errioxan bilera bat egitea erabaki zuen, San Millán de la Cogolla-n hain zuzen ere, noizkoa segurki aipatu ez arren.

Bilera horren arrazoia hauxe litzateke, mende\* honetan mila urte betetzen direla S. Miliango monasterioan euskarazko glossa batzuk\* idatzi zirenetik, Akitaniako ha-

rrietakoen ondoren, dokumenturik zaharrenak berak. Ea, bada, Euskaltzaindiak, geurzko\* programma egiterakoan, Errioxako bilera hori kontuan hartzen duen, hangoen euskal sentimenduak birpizteko interesgarri litzateke eta.

## Euskarazko denda izendegia

Aurtengo ekainaren\* 1eko *Gaceta del Norte*-tik artikulu hau kopiatzen dugu:

«Euskaltzaindiak, oraintsu, denda, erakunde,\* kargu eta ofizioen izenekin hiztegitxo bat onhartu du ofizialki, beren dendei euskal izena jarri nahi dieten merkatari guztiek nora jo jakin dezaten.

Izendegi honek, gutti gorabehera, hirurehun izen inguru daduzka, haien artean erdarazko *confecciones, zapateria, relojería, panadería, perfumería, carnicería* eta abar (jantzigintza, oinetakoak, erlojutegi, okindegi, lurrindegi, harategi... euskaraz).



Euskaltzaindia, une honetan, merkatalgo\* talde garrantzitsu batekin dabil harremanetan, hiztegitxo horren argitaratzerako diru batesa lortzeko, dendari guztien eta jende arruntaren\* interesa, dudarik gabe, edukiko duena.

Ea, ba, noiz ikusiko dugun argitara emana euskal denda izendegi hori. «Banco de la Vasconia» delakoak babesturikoan du jaraipide ederra.

## Bilbo Zaharreko merkatarien batzarre orokorra

Joan den maiatzean, Bilbo Zaharreko merkatarien elkartasunak bere urteroko batzarre orokorra\* egin zuen, bertan kargu berriztapenak eratzeko. Lehendakari berritza Jesús Duñabeitia jauna izan zen aukeratua. Batzarre berean, propagandarako eta Bilbo Zaharreko merkatalgo\* giroa indartzeko presupostua % 70ean jaso zuten.

Ohitura denez, Bilboko alkatesak, Doña Pilar Careaga andreak, buru egiten zuen batzarre haren ondoren, oturuntza\* bat ospatu zuten.

## La Voz de España-ko sasibatasauna

Harriturik irakurri dugu, maiatzaren azkenetik Donostiako *La Voz de España* erdal kazetak igandero euskararen batasunaz ekartzen duen saila. Sail horretan, Euskaltzaindikoa omen\* den Jon Oñaitibia jaunak —omen diogu, ez baitirudi— azken urteotan euskararen batasunaz Euskaltzaindiak ofizialki onharturiko eta gomendaturiko arauen lepotik publikoki barre galantak egiten ditu. H-aren arazoaz bereak eta bost esaten ditu, orthoprapi arloan ñ, //, apostrophoak eta ez dakit gehiago darabiltza; hitz batez, Euskaltzaindia, berak «orain argitzen ari duen» batasun arlo horretaz deus esan ez balu bezala dihardu.

Kaltegarria iruditzen zaigu oso, jaun horren probokazio jarrera\* hori, are\* gehiago, dagoen erakundean\* dagoelako, harenganako errespetu bat zor duenez gero. Askoz kaltegarriagoa eta buru guttiagokoa —ala gehiagokoa ote?— *La Voz de España* aldizkariak darabilan jokoa, zeren\* Euskaltzaindiaren kontra ari den bati atek zabalik uzteak ethika kontuan izenik ez baitu. Noiz arte, Catilina...?

## 1973.eko Jose Antonio Agirre Saria

Baionako «Euskal Kulturaren alde» erakundeak, jakin erazi ez digunez, aurtengo J. A. Agirre Saria ETORREK (oraingo GEROK) argitaraturiko lehen liburuari, Orixeren **Jainkoaren billa** obra mystikoari, eman dio. Honez gainera, Jaime Kerexeta apaiz bizkaitarraren **Alkartasun Berria** liburuari ohorezko aipamena egin dio.

Aurtengoaz J. A. Agirre Saria, Euzkadiko lehendakari izandakoaren omenez jarria, hiru bider eman da; eta aurreko biak Bitoriano Gandiaga frantziskotarrari eta Xanti Onandia karmelitari eman zitzairen. Oraingo hau, aldiz, erdiapaiz izandako bati eskaini zaio, nahiz eta ohorezko aipamena apaiz oso bati egin. Dakusagunez, saria laikoen artera ere hasi zaigu zabaltzen; ba dugu itxaropena, horregatik, beharbada, Jainkoak nahi badu eta ma-haikoei ongi iruditzen bazaie, hurrengo sekular oso bati emanen diotela. Hala bada, hala biz;\* eta ez bada, ...**ora pro vobis.**

## ARMENDARITZ

balute, <b>balebe</b>	diote, <b>deutsoe</b>
bihoazkio, <b>joan bekioz</b> (bekizkio)	ditzan, <b>daizan</b>
daduzka (dauzka), <b>daukaz</b>	leudeke, <b>legokez</b> , egongo
daude, <b>dagoz</b>	lirateke
dezaten, <b>daien</b>	lezake, <b>leike</b>
die, <b>deutse</b>	zaie, <b>jake</b>
diegu, <b>deutsegu</b>	zaigu, <b>jaku</b>
diete, <b>deutsee</b>	zaio, <b>jako</b>
diezaietela, <b>deioeela</b>	zedukatzen (zeukaten), <b>euken</b>
digu, <b>deusku</b>	zien, <b>eutsen</b>
dio, <b>deutso</b>	zieten, <b>eutseen</b>
genieke, <b>geunskioe</b>	zitzairen, <b>jaken</b>

Froga ezazu zuk zeuk

**BYASS 96**

ona dela izenez eta izanez



**GONZALEZ BYASS**

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

# UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

**Non:** Donibane Lohizunen (Lapurdi).  
**Noiz:** Abuztuaren 28tik irailaren 8rarte.

G A I A K :

## 1. Literatura

**L. Villasante:** XVII. mendeko literatura (Donibane Lohizuneko idazleen eskola).

**I. Sarasola:** Gaurko literatura.

**J. Haritschelhar:** Idazki argitze lana.

## 2. Linguistika

**L. Mitxelena:** Euskararen historia.

**A. Irigoien:** Euskararen estruktura morfo-sintaktikoak.

**M. Murgiarte:** Linguistika eta irakaskintza.

## 3. Historia, edergintza

**P. Narbaitz:** Nafarroako erresuma nola eta norekin sortu zen.

**J. Intxausti:** Ipar Euskal Herria 1870.etik 1914.era.

**J. L. Lizundia:** Geografia politikoaren historia.

**J. San Martín:** Lehengo euskal edergintza.

— Harri Haroko edergintza.

— Erdi Haroko eta Pizkunde garaiko edergintza eskolak.

**J. Larramendi:** Gaurko euskal edergintza.

## 4. Ekonomia

**G. Antsola:** Euskal Herriko industria eta dirugintza gaurko gizartean.

**J. L. Lizundia:** Ekonomiako bideak.

**X. Irigarai** eta **J. L. Davant:** Gaurko laborantza.

## 5. Matematika

**K. Santamaria:** Logika matematika.

**J. L. Txillardeggi:** Matematika irakaskintza.

**J. R. Etxebarria:** Fisika irakaskintza.

**C. Harlouchet:** Informatika irakaskintza.

## 6. Antropologia

**J. M. Satrustegi:** Nekazaritza eta olagintza. Jondoni Joane egunetako folklore eta ohitura zaharrak.

**G. Bidarte:** Soziologia berriaren bideetarik.

**J. M. Barandiaran:** Zein diren euskal etniaren berezitasunak. Etnografiarako lan bideak.

## 7. Pedagogia

**A. Lerxundi:** Dakitenei euskara nola irakats (alfabetatze problema).

**P. Altuna:** Ez dakitenei euskara nola irakats.

**Donostiako irakasle talde batek:** bi mintzairerako irakaskintza.

## 8. Gogoeta saila

**J. Azurmendi:** Gaurko egoera ideologikoari hitzazurre bat.

**R. Garate:** Lanaren antropologia edo Marx eta kristautasuna.

**P. Xarritton** eta **P. Agirrebaltzategi:** Fedearen dinamika.

Gai horien azterketak edo ikertzeak egingen dira:

- Goizetan:** irakasleek emandako mintzaldiak.
- Arratsaldeetan:** talde edo multzo berezietan irakasle eta ikasleek erabiliko dituzten elkar hizketak.

Argitasun eta xehetasun gehiago ukateko, galde egin ahalik lasterren zuzenbide honetara:

**Joseba Intxausti**  
Cuartel, 2  
Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel. 651106

## GALERIA DEL LIBRO

Gotzon Zaballa

Liburudenda  
erregalutarako gauzak  
Euskal liburuak  
Paparteria

EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, núm. 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

## « EUSKALDUNTZEN »

Euskara ikasteko methodorik moderno, erakorkor eta osoena gaur egun gure artean.

Liburu atsegingarri honekin ikasleak ez du neke handirik izango, esaldien esannahia irudien bitartez erakusten baitzaio.

Gaur egungo irakaspide hoberenetan oinarriturik dagoen methodo honek, euskararen munduan zatika zatika, poliki poliki sartzen gaitu.

Methodo honekin —lehen ikus, gero entzun, orain esan, gero irakur eta idatz— EUSKARA zeure hizkuntza urte eta erdian ikas dezakezu.

Eskatzeko:

Editorial Cinsa  
Avda. Ejército, 18-3.º  
Bilbao-14



# Agur, Jean Bosc!

Jean Bosc, cartoonist edo karikaturista, hil egin da. Dibujo\* bat bezala dibujatu du bere azkena: bere burua hil du. Jakina, Jean Bosc «humore beltzekoa» omen zen, haren eztenak ziztaturik sentitzen zirenek ziotenez. Eta nor ez zen nolabait dibujo itxurabage haietan harrapatu-rik aurkitzen?

Baina ez dakit, karikatura haietan ez humore beltzik eta ez horirik zegoen: tristuraren eta burlaren arteko irribarre bat zegoen, nahigabea eta mina. Samina. Mundu zoro honetan indibidualista bati gelditzen zaion nahi-gabe garratza.

Jean Boscen egun haundiak Algeriako gerlak\* ekarri zituen. Garraztasunez dibujatzen zuen gerlaren absurdua: hilabeteko gartzela eman zioten, bere dibujoak «sudversiboak» zirelako. Boscek ba zekien, gerla zer den. 19 urtetako mutil bat zen Jean Bosc, Nimes ondoko mahastietatik atera eta, «aberriak» harmaz kargaturik Indotxinara bidali zuenean. Barrutik apurturik utzi zuen Jean Bosc gerla honek. Etxeraturik, Jean Bosc autodidakta dibujatzen hasi zen. Beste batzuek idatzi edo hitz egiten duten bezala, Jean Boscek dibujatu egiten zituen bere inpresioak eta gogoetak.

Egun batetan, hartu bere dibujoak kanpazooan,\* eta Paris Match-en erredazioan presentatu zen. Egun hartan hasi zen Jean Boscen arrakasta\* bidea. Batez ere Chaval-en influentzia zekarren. Eta heriotzean ere Chavali jarraitu\* zaio, harek bezalaxe bere burua hiltzean.

Habila zen militarri, gerlari, de Gaulleri adarra josten. Eta egungo bizimodu guztiari tankera\* paramilitar bat ematen dionari ere: dela trafikoa, udatiarren masa turismoa, ehorzketak,\* desfile ofizialak eta zernahi antzeko.

Jean Bosc indibidualista amorratua zen. Hor, karikatura batetan, jendea, ilaran,\* bata bestearen gainean pilatzen da, desfile bat ikusteko, hanka punttetan eta lepoa\* luzaturik. Atzean, guztiz demonstratibo aulkian eserita,\* gizon bat gelditzen da. Baina indibidualistarentzat ez dago mundu honetan lekurik: anormal bat bezala ikusita dago, eta, Jean Boscen dibujoetan behin eta berriro ikus daitekeenez, azkenean jendeak desprezios akabatzen du. Jean Boscen dibujoetan jendearen erdian agertzen den indibiduo bakarrak beti absurdua adierazten du: bere burua esekitzera\* doan bat duzu, edo gerlak mutilaturiko soldadu galdu bat, edo militar autoritario bat soldaduen buruen gainean martxatzen.

Jean Boscek bizitzako situazio jeneralak dibujatzen zituen. Ez, Konkek bezala, gertaerak desfiguratzen. Ez zen Sempé bezalakorik ere: modari, edo ahopeko esamesari erantzuten dion gizarte-ilustradorea. Ez zituen karakteroak ager erazten, eta bai situazioak. Hortik zihonan, bai karikaturetan eta bai dibujo bizitako filmeetan. Keramikan ez zuen arrakastarik izan.

Jean Boscen arrakastarik haundieneko urteak 50 eta 60.enak izan ziren, eta nolabait urte haiei loturik zegoen Jean Bosc. Gerla ondoko Pariseri, Tardieu eta Ionescoren

fantasia beltzak eta teatro absurdua sorterazten zituèn\* Pariseri. Une batez absurdua ezagutu zuèn Pariseri. Eta Jean Boscek, absurdua berriro ahaztu\* duen Parise ahaztu nahi izan du: bere burua hilez. Agur, ba,\* Jean Bosc: eta izan beza bizi hobe!

M. L.

## Albanera Literario Batua (I)

Neure eskuetan Lazar Dodic-en informe bat dut: albanera literario batua egunotantxe nola sortzen ari diren esplikatzen du.

Albaniarrak, Europako indo-germaniko herrietan, zaharretakoak dira. Guztiz interesgarria zientifikoentzat. Haien ohiturak, ohiturazko legeak, folklorea, eta haien hizkuntza batez ere, guztiz jakingarriak dira, indo-germanikoen historia zaharra argitzeko. Balkan herrien prehistoria ezagutzeko ere, laguntasun haundia ematen dute hizkuntzan eta ohituretan gordetako datuek.

Gaurko albaniarrak Ilirioen eta Thrakioen ondorengo bezala har daitezke. Eta bi herriok, historian zehar, grekoen, erromatarren, turkoen eta geroago eslaboen menpean egonak dira. Eta guztiok nolabait asimiliatuak. Hala ere, albaniarrek ez dute beren nortasuna galdu. Ilirioak eta Thrakioak, bestalde, herri indo-germanikoak ziren. Bi mila urte inguru K.a. okupatu zuten Balkan lurraldea.

Beraz, albaniarrek aintzina aintzinako kultura indo-germanikoa gorde ahal izan dute, Albaniako mendiarteri esker, aislatuta bizi izan dira eta. Ez da harritzekoa, ba,\* zientzian Albanologia diziplina edo adaska\* bezala desarroilatu baldin bada.

Albanologian kapitulurik importanteena hizkuntzaren azterketak betetzen du. Hizkuntza indo-germanikoen eza-gupenerako biziki interesgarriak diren fenomenoak aurki daitezke albaneran. Hizkuntza honetan garbi haute-man\* daitezke prozesu historiko ezberdinen aztarrenak:\* greko, erromatar, turko eta eslabo haroen aztarrenak, alegia.\* Eta egungo azterketetan zientziek bitxitasun eta orientazio asko susma dezakete albaneran: beste hizkuntzetan bakan\* agertzen den zenbait fenomeno, albaneran arruntki\* gertatzen baita. Albanera hizkuntza propio bat da, hitz greko, eslabiko eta turko askorekin. Albaniarrek berek **skipetaro** izendatzen dituzte beren buruak (Vasco-ek **euskaldun** bezala).

Hiru milioi eta erdik hitz egiten duen hizkuntza honek (2,2 milioi Albanian, besteak Jugoslabian) ba du bere literatura herritarra. Baina 1972.eko hazilerarte\* ez du hizkuntza literario baturik eduki. Orain arteko literatura dialektutan egin izan da, batez ere Iparraldeko eta Hegoaldeko bi moduetan: Toskikoan (hegoaldekoa) eta Gegikoan (iparraldekoa) alegia.\* Oraingo gobernuak 1972.eko hazilaren 20tik 25era Biltzarre orokor\* bat antolatu zuen, Tiranen, albaneraren idazkera finkatzeko eta albanera literario batua erabakitzeke. Biltzarre honek erabaki zituèn arauak aginduko dute hemendik aurrera idazkera kontuan. Ondorengo urteetan erabakiko dira, banan banan, oraindik falta diren puntuak.

LAZKANO MENDIZABAL

# Koldo Ormaetxea eibartarra joan zaigu

Argentinako Castelar-en, 73 urte betetzeke\* hil da Luis Ormaetxea Arrate, eibartar jatorra. Tekniko industrial eta aparejadorea, ogibidez; gudurarte Eibarko Armeri Eskolaren zuzendari ordezkaria izana, eta geroztik Argentinan bizi zena.

Abertzale zintzoa eta euskaltzale sutsua. Argentinako puntan sortu zitzaizkion seme-alabak ere, euskaraz hazi eta hezi zituen gizona.

Noizbehinka euskaraz idazten zuen, gehienetan «Isasi» izenordepean, Argentina eta Mexikoko «Tierra Vasca»n eta Buenos Airesko «Euzko-Deya»n; eta inoiz ANAITASUNA honetan ere argitaratu zituen bere artikulua.

Azken urteotan euskaraz argitaratzen zirèn libururik gehienak irakurri zituen; eta idazle berrien eragina ere gogo onez ikusten zuen eta jarraitzen. Adinekoa zenez, H letra ez zitzaion hain gogoko; baina ez zuen uxatuko. Eibartar jator bezala, oso gizon pragmatikoa zen, ekin-tzazalea. Alferrrikako eztabaidetan denbora galtzerik gusatzen ez zitzaiona. Praktikotasuna non, bera han. Alde batetik, honexegatik ez zuen H-rik gogoko: bere ustez, praktikoa ez zelako.

Azken urte hoietan, bizpahiru aldiz hemen izana zen. Gure euskeraren galeragatik asko sufritzen zuen. Herri herri egin zituen ibileretatik, samina eta oinazea besterik ez zuen jaso. Itxaropen izpi bat ikusten zuen euskaltzale gazteen artean. Bere ustez, inoiz ez ziren izan gazterian hain euskaltzale kartsurik. Bere Eibarren aurkitzen zuen onenetarikoa ere, hori zen: gazteen artean hainbeste euskaltzale eta euskal idazle izatea. Gainera, hauetako bat, bere emaztearen lehengusu den «Amatiño» gazi-geza.

Bere adiskiderik bihotzekoena Edorta Alberdi zuen, eta Toribio Etxebarria ere bai; neurri handi batean bera izan zen, Toribio euskarazko lanetara bultzatu eta animatu zuena. Nik Toribio eta Edortaren bidez hartu nuen, aspaldi dela, berarekiko harremana; eta ez naiz damutzen adiskidetasun honetaz, orain doluminaren parte bat badaramat ere. Aurtengo otsaileko\* gutunean\* hara zer esaten zidan: «ANAITASUNAN 'Euskaldungoa' idazten dabena ez nagok konforme, ba beti burruka billa agertzen dok, arrazoi guztia berak bakarrik baleuka lez.\* Danok batu egin behar gaituk, ez aldendu. Euskeraren alde lan egiten diarduen\* guztiak goraltzekoak dituk nerzat».

Hor azaltzen du bere gogo eta izatearen zati bat. Ideia diferenteak errespetatzen zituen eta dogmakeriak uxatzen, nahiz ezker nahiz eskuin. Eibarren ere ematen dira eibartasunik gabeak, demokrata zentzurik gabeak; baina Koldo Ormaetxea ez zen gutxi hoietakoa, baizik pentsamen zabalekoa, diferente pentsatzen zutenei ere leku egitekoa. Euskararen bizitzak eta euskal literaturaren indartzeak gehien kezkatzen zuen.

Baina bere adiskiderik handiena eta laguntzailerik hurbilena,\* bere emazte Maritxu zuen, euskararen, aberri minetan eta bizitzako poz eta larritasun guztietan lagundu diona.

Eibartarrontzat ezezik,\* Euskal Herriarentzat ere gizon zintzo bat galdu da, eta pertsonalki ezagutzera heldu ginenontzat adiskide on bat.

Bego, bere fede sendoak espero zuen egun handian.

JUAN SAN MARTIN

daramat, daroat  
dio, deutso  
zaigu, jaku  
zidan, eustan  
zitzaion, jakon  
zitzaizkion, jakozan



Emakume, gizonezko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren  
gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonezkoentzako  
jantzi aukeratuenak, azken  
modara eginak

**HURI ZAHARRA**

“Casco Viejo”

**BILBO**

## OPORRALDIAK

Tren, untzi eta hegazkin  
txartelak

Ezkonberri bidaiak  
Arazo bidaiak  
Xofer gabeko automobil alokatuak

**VIAJES  
ECUADOR**

«BILBOKO BIDAI AGENTZIA»

Arriagako Plazan, 1 — Tel. 242468

... Zuen zerbitzutan

(G. A. T. n.º 68)

# UGABEREA (11)

Errota zaharreko leihotik begira dago Eneko. Erreka ondoko hal-  
tzen\* hosto\* berde ederren artean, ur garbiaren zilarra dakusa,\*  
dirdira politaz. Goratxoago, sahatsez\* inguraturik, erreka osin lu-  
zetxo bat dauka. Hara begira dagoela, gauza luze bat sartzen da  
uretara, eta, murgildu ondoren, ur azaletik hasten da igerian. Muti-  
koa, aho zabalik, leihoa utzi eta osabagana abiatzen da.

—Osaba, zatoz, zatoz leihora! Ez dakizu, seguru asko, zelako\*  
sugetzar ikaragarria dabilan hor, beheko osinean. Zure besoak be-  
zain lodia da, guttienez.

Osaba Martin, irribarretsu, esku arteko berripapera mahai gai-  
nean utzi eta aulkitik altxatuz, leihora hurreratzen da.

—Hain haundia izateko —dinotso—, ez ote da izango **udako**  
**sugea**?

—Zer ba? —mutikoak jakin gurarik—. Udan suge handiagorik  
egoten da ala\*?

—Ez, txotxo, ez. Ez deustazu ulertu. **Udako sugea** kazetariak\*  
udaro asmatzen daben gezurrezko suge haundi bati esaten jako, inon  
ez dagoena; baina udetan albiste gutti egoten danez gero, gezurrez-  
ko suge hori dala eta, edo **plater hegalaria** ba direla eta ez direla,  
kazetetako horrialdeak holako ipuinekin betetzen dira. Ulertzen dozu  
orain?

—Bai, ulertzen deutsut; baina hor errekan dabilan hori ez da  
gezurrezkoetarikoa. Begira! Han dago! Ez dakusazu\* zelan dabilan  
ur gainetik?

Osaba, une batez, harriturik gelditu zan. Enekok arrazoia eban.  
Osinean izugarrizko sugetzar bat ebilala ematen eban; baina... ha\*  
ez zan posible! Halako batetan, «sugea», lehorrera etorri eta... ha  
bai gauza! lau zatitan ez zen banatu, ba\*!!

—Zer da hori? —Enekok ezin sinetsirik.

—Ez dakusazu\* zeuk, ba?

—Bai, baina zelan dau izena horrek?

—Ugaberea.

—Zergatik ez goaz ixilik sahasen ondora, bertatik hobeto ikus  
daiguzan, e osaba?

Esan eta egin. Osaba Martin eta Eneko, errotaren atzeko atea  
kontuz zabaldu eta ixilka-mixilka osinaren ondora hurreratu ziren,  
ur bazterreko sahatsetan gordeta. Handik oso ederto ikusi ahal izan  
zituen lau ugabereak. Haretariko bat, ama, antza, handiagoa zan  
eta beste hirurak, kumeak, ttikittoagoak. Berrero ere uretara murgildu  
ziren bata bestearen atzetik, urrundik begiratuta suge luze baten  
itxura emanez, bizkarrak ur gainetik agertzen zituen eta. Gerotxo-  
go, uretan bertan, bakoitza bere kontutik ibiltzen hasi zan.

Ugabere txo batek, lehorrera egitean, ahotan igei\* berde handi  
bat atera eban, eta, harri baten gainean trankil ezarriz, krauska  
krauska jaten hasi zan. Beste batek erreka karramarro bat harrapa-  
tu eban, eta modu berean ekin jakon jateari, aurreko hankatxoekin  
ondo lotuta. Hirugarren kumeak beste karramarro bat atera eban;  
eta ama, osineko ur sakonetatik luzaro ibili ondoren, azkenean, bere  
kumeak egozen lekura abiatu zan, muturrean amurra\* eder bat  
erolala. Berau, bizirik oraindik, buztanka ari zan; baina ugabereak,  
bere eskuekin ongi lotuta, burua zatitu egin eutson haginka, bertan  
hilda utzirik. Gero, zati batzuk\* jan' ondoren, hondakinak bere kume-  
txoei laga eutsezan, eta beroneek poz haundiz hartu ere bai, zatitxo  
bat ere utzi gabarik.

Ondoren, eskutxoek muturrak garbitu eta uretara abiatu ziren,  
handik beste osin batetara urrunduz. Ha bai poza Enekorena! Hala  
piztiattoak hain hurretik ikusi ahal izatea ere!

—Osaba, ugabere guztiak honeek bezain handiak izaten dira?

—Bai, luzetara 80 zm. izaten dabe, 45 zentimetrotako buztan  
batez. Hankak, berriz, ikusi dozunez, ttikittoak izaten dira, saltxi-

txa-txakurren antzerakoak, baina plamatuak, ahateenak lakoxeak,  
holan ondoen ibiltzeko.

—Eta non bizi da ugaberea?

—Ugaberea basoetako erreka eta hibai guztietan bizi izaten zan  
lehen; ia Euskal Herriko toki guztietan. Ba ziren ehiztari\* berezi ba-  
tzuk, hareen larru finagatik, erreketan ugabereak harrapatzeko sa-  
reak jartzen ibiltzen zirenak; baina orain fabrikek geure erreka ge-  
hienak hondatu deuskuez, eta ugabereak gero eta eskasagoak dira.  
Orain, egia esateko, leku menditsuetan eta oihanetako\* hibaletan  
ezik, ez dira bizi.



—Eta beti egoten da uretan sartuta, osaba?

—Arrantzan ibiltzeko edo eta jolas egiteko, bai; baina lo egi-  
teko, habia bat eukitzen dabe lehorreran. Habia honek zulo bi izaten  
dau beti: bata erreka doa, urpera, eta bestea lehorrera, sasiarte  
ezkuturen batetara. Habia hori goroldioz\* eta belar sikuz horniturik  
egoten da, bertan epel epeletan egoteko. Kumeak ere, handitook,  
izan arte, bertan gordetzen ditu amak.

—Zer jaten dau ugabereak?

—Hara... zerorrek ikusi dozuna: igelak, karramarroak, arrainak,  
sugeak, urarratoiak eta, aldamenean topatzen dituanen, bai txori-  
kumeak ere.

—Zer izen dau erdaraz ugabereak, osaba?

—Begira! Lehenbizi euskaraz esango deutsudaz, bat baino ge-  
hiago dau eta. Hemen, Orozkoko inguru honetan, **urtxakurra** esaten  
deutsoe; baina ez da hau haren izen propioa. Euskaldun gehinek  
**igaraba**, **ugadera**, **igarabire**, **igaraua** eta **uagara** deitzen dabe; baina,  
Azkuiek dinoenez, ba dirudi izen guztion iturria hauxe dala: **ugabere**,  
«ur abere» alegia. Ez dakit nik hori egia dan ala, bestetik, izena  
**ugar** edo **igeri** egitetik dator. Bat aukeratzekotan, ordea, **uga-  
bere** hartuko neuke nik hobetzat. Espainolez **nutria** izena dau, eta  
frantsesez **loutre** (= lutr). Zientzi izena, berriz, **Lutra lutra** da.

TRAUKO

dabe, **dute**  
daiguzan, **ditzagun**  
deuskuez, **dizkigute**  
deustazu, **didazu**  
deutsoe, **diote**  
deutsudaz, **dizkizut**  
eban, **zuen**

ebilan, **zebilan**  
eroian, **zeraman**  
eutsezan, **zizkien**  
eutson, **zion**  
jako, **zaio**  
jakon, **zitzaion**

# Kontsumorako zaletasuna

«Kontsumo gizartea» izenaz adierazi ohi da gehien batetan egungo\* gizarte moldea. Gure gizarte honek, teknika aurrerapenez baliaturik, denetariko produktu motaz estali ditu, edo nahi ditu, bazter eta txoko guztiak.

Hala ere, gizarte honi buruzko eritziak, hortik aurrera, oso gutti sakontzen dira. Jendearen eritzi apalak honetara mugatzen dira: urteen poderioz gizona zernahi eskuratzeko aukerara heldu dela.

Ondasun materialen ugaltze paregabea begien bistan dago. Baina hor ezin gintezke lasai gera,\* mekhanismo guzti hori hurbilagotik\* eta sakonagotik ikusmiratu gabe. Mekhanismo horrek ez baititu soil soilik produktuak fabrikatzen. Zerbait gehiago ere egiten du; eta hau da, hain zuzen, azpimarkatu\* nahi nukeena.

Gaurko gizartea, produktuekin parez pare, kontsumorako zaletasun bizia sortertzten bereak eta bost ahalegintzen da. Beraz, ez da, norbaitek uste lezakeen bezala, produktu sortzaile soila, askoz gehiago baizik: hots,\* produktuok erosiko dituen pertsonaren sortzaile, alajaina! Ez gehiago eta ez gutiago. Eta ez beza inork uste, txantxetan ari naizenik, egia biribilagorik ezin bailiteke erraz inguruan nabari.\*

Izan ere, produktuak nolabait, saltzeko, ezinbestekoa du sistema honek, aldi berean, publizitatearen bidez, gizartekoengan zenbait sasibehar\* sortertztea; azken finean, dakigunez, systemaren eragile eta sostengu kontsumitzailea baita. Hori begien bistan du beti systemak; eta publizitatea, kasu honetan, harmarik bikainena bezala, ederki erabiltzen du.

Herri psykologia ezagutu ondoren, mila entseu eginen ditu, ikusle edo entzulearen baitan\* sasibehar hori sor\* dadin. Horretarako bideak era edo modu askotakoak izan daitezke, azken aldi bat nagusitu bada ere.

Jadanik,\* agerterazi nahi duten produktuaren inguruan ez da faltako, «pornografía barata» delakoan agertzen den irudirik. Jakina, sexual errepresioak eta besteak nola probetxa ba dakite, giza dinamikari eragiteko.

Honez gero, garbi dago, jasaten\* dugun giza egitura\* herriaren ahulezian\* oinharritzen dela. Systemaren sostengua, beraz, giza alienazioa litzateke azken finean.

JOXE M. ODRIOZOLA

beza, **bei**  
gintezke, **geintezke**  
lezake, **leike**



**Banku batetik espero duzun baino askoz gehiago eskaintzen dizugu.**

**Hala ere, oraindik gutti dela uste dugu.**

Hona hemen, emakumearentzat eskaintzen dugun zenbait zerbitzu. Haietarik batzuk ez dira berriak. Baina denek dute berezitasun bat: emakumea haintzat hartzen dutela.

Hau kontuan harturik, Banku barruan bertan bulego batzuk muntatu ditugu, neskakita espezializatu batzuen ardurapean daudenak.

Eta dena egin dugu, gure gizartean emakumeak lortu duen aurreramenak harrotzen gaituelako. Honela, geure oneritzia eta mirespena erakusten diegu bai etxeko andreei eta bai emakume soilei.

Gaurko emakumeak ba daki zer nahi duen eta bere gurariak nola lor ditzakeen. Zerbitzu hauen bidez geure eskerrona erakutsi nahi diegu, eta geure laguntza eskaini.



Chèques Regalo



Cheques de Viajes



Cuentas Corrientes



Domiciliación de Rebas



Libretos de Ahorro



Acción con la Mujer



Grupos Transfereci



Operaciones de Crédito



Banco de la Mujer

**Banco de Bilbao** Banku honek emakumearen eskubideak zaintzen ditu

## KONFIRMATU GABEKO ZURRUMURRUAK

Gehienetan ongi informaturik egoten diren iturrietatik, azken orduan gure idazkaritzara ondorengo berriki heldu dira:


- Espainiako Hizkuntzaren Erret\* Akademiak erabaki hau hartu omen\* du oraintsu: Don Cicuta eta Kiko Ledgard teleartistak, Lola Flores eta Juaniyo «er Lagartijo» flamenko kantari dantzariak erdaltzain laguntzaileak izendatzea, bakoitzak bere sailean egin duen lan bikaina, jendeagandik duten harrera ona eta beraiengan dauden hizkuntz eta literatur balio bereziak kontsideraturik.

Honetan akademiko zaharrek oso bista zabalez pentsatu bide\* dute, ez zaiola Herriari inon aterik hertsit\* behar, eta horretarako guztiok barrenera sartzea erabaki. Olé! Ez dugu dudarik egiten, honetaz, Erdal Akademiak nonbait imitatzaile bikainak izanen dituela.


- El Lute, euskaldun ezkertiar (?) batzuen jokabide zoragarria ikusirik, oso pozik omen dago, kazetari batzuei oraintsu esan berri dienez. Nork esan!

- Chumy-Chumetz eta Perich jaunek lehen **españolés** hiztegia aterako omen dute uda honetan, turistei kasu gehiegi egiten dieten pertsonekin hizketan aritzeko oso premiazkoa, halajaina! Geurean, ordea, honetan ere aurrea hartua omen diegu euskaldunok.

- Bilboko jaun mediku batek ezik, Euskal Herriko edozein hizlarik omen ditu nahi duenaz publikoki hitz egiteko baimen ofizial guztiak. Amen.



GURUTZEGRAMA (22)



**Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Jatekoari botatzen zaio (artikuluarekin).—2. Zenbakia.—3. Izenorde posesiboa (artikuluarekin).—4. Kontsonantea. Belarra ebakitzeko tresna (alderantziz eta artikuluarekin). Bokala.—5. Txoria. Bokala, Zurezko punta, bitarteak herstekeo erabiltzen dena (alderantziz).—6. Txukuna, zikinik gabea. Nora sartzten duzu jatekoa? (alderantziz).—7. Bokala. Ahari irendua (alderantziz eta artikuluarekin). Kontsonantea.—8. Etzan aditzaren forma.—9. Amerikako Estatu Batuak.—10. Sendotasunean.

**Goitik behera:** 1. Nahia.—2. Gorotza (errepikatuz). Bokala.—3. Eginkorra, langilea (alderantziz eta artikuluarekin). Kontsonantea.—4. Kontsonantea. Non jaino zen Unamuno? Bokala.—5. Garaua, bihia (artikuluarekin). Zeri darior kea? (alderantziz).—6. Gauza biren arteko lekua. Ezin ikus dezakeena.—7. Izenorde pertsonala (datiboan). Higuina (alderantziz).—8. Bokala. Dokumentua (artikuluarekin). Bokala.—9. Zortea, patua (alderantziz). Bokala.—10. Izenorde pertsonala (alderantziz). Kontsonantea.—11. Barazkia, ortuaria (pluralean).

**Goitik behera:** 1. Gogo.—2. Kaka. O.—3. Aria («zer gizon artai»). S.—4. G. Bilbon. A.—5. Alea. Suari.—6. Tarte. Itsu.—7. Zuet. Nazka.—8. A. Agiria. E.—9. Zori. A. 10. Hi.—11. Azak. Osaunean. Garbi. Ahora.—7. O. Zikiroa. K.—8. Natza.—9. USA.—10. Lau.—3. Bera.—4. G. Igitia. A.—5. Okil. E. Ziri.—6. AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera. 1. Gatza.—2.

HIEROGLYPHIKOA



Zein da kontinente hau?

EUSKAL SALDA



Goiko koadro horretan zazpi koloreren izenak daude, zuzenean jarrita. Aurkituko dituzu? Kontuan hartu behar duzu eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, goitik behera, behetik gora edo eta zeharretara, diagonalean ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzatuz ere.



HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Amerika

EUSKAL SILDAREN ERANTZUNA:

Zuria, gorria, urdina, morea, berdea, horia, beltza.

# HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

## Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABANTAIL, ventaja.  
 ADASKA, adarska, ramita, sección.  
 ADINA, aina, beste, bezainbat.  
 AGIAN, beharbada, nonbait.  
 AGUDO, laster, arin.  
 AHANTZI, ahantzu.  
 AHAZTU, ahantzi (ahantzu). Ene ustez, euskara baturan, aditz hau sustraiko N letrarekin erabili behar litzateke beti. Lapurtarrek egiten duten bezala. Adibidez: Ahantzi (ahantzu), ahantz, ahantzakizun, ahanzkor, ahantzle, ahante, eta ez ahaztu, ahaitz, ahazkizun, ahazkor, ahazle (ahaztutzaile), ahazte (ahaztutze).  
 AHULEZIA, makaltasun.  
 AITZINFAN, aurrean.  
 ALA, qué?  
 ALDERA, comparar. (ALDERATU, comparado).  
 ALEGIA, a saber, es decir, esto es.  
 ALUKERIA, bidegabekeria.  
 AMOREGINCAITZ, intransigente.  
 AMURRAIN, trucha, truite.  
 ANITZ, asko.  
 ARABERA, arauera, según, conforme.  
 ARE, oraindik, aún, encore.  
 AREAGO, oraindik gehiago.  
 ARRAKASTA, éxito, succès.  
 ARRAS, guztiz, zeharo.  
 ARRUNT, erabat, guztiz: común, corriente, ordinario.  
 ARRUNTI, comúnmente, corrientemente.  
 ASKI, nahiko.  
 ATMOSPHERALDE, zona de atmósfera.  
 ATXIKITZE, adherirse, atenerse.  
 AZPIMARKATU, subrayado.  
 AZTARREN, aztarna, vestigio.

BA, bada, pues.  
 BAITAN, -gan.  
 BAKAN, raro, raramente.  
 BANAZKATZE, banatze.  
 BATZUK, zenbait. (Batziek aktibo, batzuk pasibo).  
 BEDEREN, behinik behin, behintzat.  
 BEREZTE, bereizte, distinguir.  
 BETEIZEKE, bete gabe.  
 BEZERO, cliente.  
 BIDE, agian, beharbada, nonbait.  
 BILAKATU, bilhurtu.  
 BILDUMA, colección.  
 BIZ, izan bedi.

DABENAKIN, dauanarekin, duenarekin.  
 DAKIKEGU, dakigu nonbait.  
 DAKUSA, ikusten du.  
 DAKUSAGU, ikusten dugu.  
 DAKUSAT, ikusten dut.  
 DAKUSAZU, ikusten duzu.  
 DANTZUGU, entzuten dugu.  
 DARDARA, vibración.  
 DATEKE, da nonbait.  
 DAZAGUGU, ezagutzen dugu.  
 DIARDUE, dihardue, dihardute.  
 DIBUJO, diseinu.  
 DIRAKETE, dira nonbait.  
 DITUKEGU, ditugu nonbait.  
 DUKE, du nonbait.  
 DUKEGU, dugu nonbait.  
 DUKETE, dute nonbait.

EGIN, apostar, parier.  
 EGITURA, estructura.  
 EGUN, gaur.  
 EGUNBIRA, rotación diaria.  
 EHIZTARI, cazador, chasseur.  
 EHORZKETA, entierro.  
 EI, omen.  
 EKAIN, junio.  
 EMATEKE, eman gabe.  
 ERABAT, guztiz, zeharo.  
 ERAKUNDE, organismo, institución.  
 EREDU, modelo, standard.  
 EROR, caer, tomber. (ERORI, caído, tombé).  
 ERORTZE, jauste.  
 ERRESUMA, reino, royaume. (ERREINU, reinado, regne). Beraz, Frantzia, adibidez, ez da gaur egunean ez erresuma eta ez erreinu, Estatu bat baizik).  
 ERRET, real.  
 ESEKI, esegi, eskegi, colgar, pendre.  
 ESERI, jezari, jarri.  
 ESKUALDE, comarca, región.  
 ETEKIN, provecho, producto.  
 ETZAN, horizontal.  
 BEZIK, no solamente.

GERA, geldi, quedar. (GERATU, gelditu, quedado).  
 GERLA, gerra, gudu.  
 GEURTZ, datorren urtean.  
 GORABEHERA, a pesar, malgré.  
 GOROLDIO, musgo, mousse.  
 GURARI, desira.  
 GUTIESTE, menospreciar, subestimar.  
 GUTUN, eskutitz.

HA, hura.  
 HALTZ, aliso, aulne.  
 HANDITSU, tumor.  
 HATZAMAR, dedo, doigt.  
 HAU, honeek. (Hauk aktibo, hauk pasibo).  
 HAUTARKI, voto.  
 HAUTEMAN, percibir, captar.  
 HAUTESKUNDE, bozketa, elección.  
 HAZIL, noviembre.  
 HEIN, grado, punto, estado.  
 HERTSI, hetsi, hitxi.  
 HEZIERA, hezkuntza, educación.  
 HIGIDURA, mugimendu.  
 HOIK, horik, horreek. (Hoiek aktibo, hoik pasibo).  
 HONDESTE, recto.  
 HONETARA, honela.  
 HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo).  
 HORRETAZ, beraz, por consiguiente.  
 HOSTO, horristo, hoja pequeña de árbol. (HORRI, hoja grande en general).  
 HOTS, a saber, es decir, esto es.  
 HURA, ha.  
 HURBIL, cercano, próximo.

IGEL, rana, grenouille.  
 IGORRI, bidali, bidaldu.  
 IKASTOLAK, Azentuak, hitza singularrean dagoela adierazten du.  
 ILARA, erronka.  
 IRAGAN, igaro, pasatu.  
 IRAGATE, igarotze, pasatze. Han barrera sartu dire / gaur iragateko; / ezen bertze ostaturik / ez zuten gelditze (Joanes Etxeberri Ziburukoa, Noelak, 50).  
 IRENTSI, absorbido.  
 IRITXI, heldu.  
 IRTEN, urten, atera, jalgi.  
 IZARBEL, planeta.

JADANIK, ya.  
 JARRAITU, jarraiki. (Aditz hau intrantsitiboa da: ni narraio, gu garraizkio, eta abar).  
 JARRERA, actitud, postura.  
 JASATE, soportar, sufrir.  
 JAZOTZE, gertatze.

KANPAZO, paper zorro, cartapacio.  
 KATIGATU, encadenado.  
 KATRAMILA, buruhaste.  
 KAZETARI, periodista, journaliste.

LANDA, kanpo, lekora, fuera.  
 LEPAPE, samape.

LEPO, sama.  
 LEZ, legez, bezala.  
 LUZERA, luzera, la longitud. (Hitz hau mugatua dela adierazten du azentuak).

MAIZ, sarri.  
 MENDE, siglo.  
 MENDEBALDE, mendebal alde, occidente, Oeste.  
 MERKATAL, comercial, mercantil.  
 MERKATALGO, comercio.

NABARI, evidente, patente, claro.  
 NABARI, advertir, notar, percibir. (NABARITU, advertido, notado, percibido).

NABARDURA, matiz, nuance.

OIHAN, baso.  
 OMEN, ei.  
 ORGA, orgea, gurdia, el carro. (Hitz hau mugatua dela adierazten du azentuak).  
 ORO HAR, en conjunto.  
 OROKOR, general, universal.  
 OSTARKU, arco iris, arc-en-ciel.  
 OSTERANTZEAN, bestela.  
 OTSAIL, iebrero.  
 OTURUNTZA, banquete.

PROBLEMA, problemea, el problema. (Hitz hau mugatua dela adierazten du azentuak).

SAHATS, sauce, saule.  
 SASIBEHAR, seudonociedad, falsa necesidad.  
 SOR, nacer, brotar, surgir. (SORTU, nacido, brotado, surgido).

TANKERA, taxu, estilo.  
 TXIRTXILLATU, completamente deshilachado. (ZIRTZILATU, deshilachado, effilé).

UDALETXE, herriko etxe.  
 UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).  
 URDIN, azul.  
 UZKALDU, atado, ligado.

XEHETU, detallado, desmenuzado.  
 XINGOLA, cinta.

ZABALTZERA KOAN, al ir a abrir. (ZABALTZEAN, al abrir).

ZALU, ágil, flexible, manejable.  
 ZELAKO, nolako.  
 ZEREN (ETA), ze, pues.  
 ZERTSU, zer guti gorabehera.  
 ZILEGI, licito.  
 ZINEZ, benetan.  
 ZITUEN, Esaldi honetan eta hurrengoan, oso argi ikusten da, aditzaren erlatibotasina adierazten duen azentuaren komenientzia.  
 ZIZTU, gran velocidad, grande vitesse.



DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra  
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMALUR** RESTAURANTA

# BRETTON WOODS (1945)

Konturatzen bagara, USAk 1944. urtean dadukan nagusigoarekin, Britainia Haundiaren kasuan aipatzen genuen super-erresuma baten arazo hura berriztatzen zai-gula dakusagu.\* Eta, lehen, erakunde gehienak Londresko City-ren zerbitzuan bazeuden, orain Wall Street-en onerako egonen dira, New Yorkeko banku handien zerbitzurako, hain zuzen.

New Hampshire-ko Bretton Woods herrixka horretan bi soluziobide irakurri ziren: bata Keynes ekonomilari inglesak aurkeztutakoa, eta bestea USAko White-k proposatu zuena. Espero zen bezala, azkeneko hau izan zen onhartua, ez noski hobea zelako (Keynes-ek sistema egokiago bat defendatu zuen, urrea baztertuko zuena, «bankor» izeneko txanpon berria sortu nahiz, eta abar), baizik eta amerikanoek beren nagusigo horri etekina\* atera nahi izan ziotelako.

White-ren arauekin antolatutako Nazioarteko Diru Erakundeak abantail hau ematen zizkion USARI:

a) Erakunde honen barrenean eta erabakiak hartzeko garaian, botoak Estatu bakoitzaren errentaren arabera\* ematen dira (hobeto esanik, kuotaren arabera, baina hau haren proportzio bat dela). Honela, USARI botoen % 30 tokatzen zaio.

b) Urre Ganbio Patroia hartzen da diru sistematzat. Hemendik aurrera, likidatasuna, harreman ekonomikoak errazteko beharrezko diren paper eta banku diruak bi oin-harritan finkatzen dira, hots,\* dolarrean eta urrean (askoz ere neurri tipiagoan libran ere bai). Horretaz gainera, nazioarteko merkatalgoa\* bai urrearekin eta bai dollarrarekin egin daiteke. Jendeari berdin zitzaion sakelean dolarra nahiz urrea edukitzea. Erresumetako erreserbekin ere halaxe gertatzen da, zeren\* eragozpenik ez baitzegoen batere USAko txanpon hori urrearekin trukatzeko. Bakarrik USA eta Britainia Haundikoek ezin zezaketen joko honetan parterik har; galerazia zedukaten trukea.

c) Trukatze hau, urre ontza bakoitzeko hogeita hamabost dolar emanaz egingo zela erabaki zen Bretton Woods-en, hots, gerra aurreko prezio berean. Hau, edozein aldetatik begiraturik, bidegabekeria handi bat da, zeren ez baitzuten kontuan izan gerrarekin sortu zen inflazio ikaragarria (% 200 baino gehiagokoa).

Bigarren gerrate ondoan, Europa txirtxillatua\* zegoen eta beharrezkoak zituen hainbat eta hainbat produktu eta ondasun, bere eraikitzea lortzeko. Eta, jakina, mun-

Esan genezake, kapitalismoaren historian ba direla zenbait konstante, beti edo ia beti gertatu direnak. Esate baterako, enpresak sakabanaturik zeudèn ekonomia bate-tik, monopolizaturik dauden beste batera iragan\* da; Estatu eta erakunde ekonomikoen arteko harreman ezatik, lotura haunditzar batera (monopolio estatal fasera); erresuma\* bakarti eta erdi autarkiko batzuetatik, elkar katigatu\* eta uzkaldu\* batzuetara, eta abar.

Gerrate ostean, higidura\* hau oso bizia izan zen, eta USAREN inguruan egindakoa, hain zuzen ere.

Urte hoietan, USAREN nagusigoa jadanik\* gauza nabarmena zen; eta datuak gura izanez gero, nahi adina\* daude. Adibidez:

a) USAko industriaren eginkortasuna edo produzio gaitasuna honela mugitu zen, indizetan jarririk: 1939.ean 100, 1945.ean 131.

b) Zifra hoiek berez asko esan nahi badute ere, USAREN aurreratze ikaragarria ezin daiteke adieraz, Europaren beherakada kontuan hartzen ez badugu. Ikus:

Europaren pasiboa edo zorra (1945) ... ..	\$ 260.000 milioi
USAREN akzioa edo hartzekoa (1945) ... ..	\$ 42.000 milioi

c) Bestalde, honela hazi zen industri produzioa garai horretan (1937-1948):

USA ... ..	+ 72
Europa ... ..	- 1
Munduko bestea ... ..	- 1

USAk, neurri gabeko botere hau dela medio, Europa eta beste erresumak zeharo kikildurik eta menpeko eduki ahal izanen du, eta ekonomian ezezik\* politikoki ere nagusi azalduko da. Hitz batean esateko, botere honek sistemaren bizkar hezur integratzaile bat bezala jokatzea permititu dio USARI.

Bere inperialismoa aurrera eramateko, era guztietako gainerresuma erakundeak\* sortzen ditu: militar aldetik eta jabegoa zaintzeko, NATO, SEATO eta beste; ekonomi aldetik, berriz, Banku Mundiala, GATT eta, nola ez, diru sistema berria (Bretton Woods-en ezarritako **Urre Ganbio Patroia** edo «Gold Exchange Standard» sistema). duan bat zen, eskain zezakeena: USA. Baina lehen aipatu dugun trukatzeko horren «berezitasun» hori dela medio (gerra aurreko neurrian egitea, noski), produktu hoik\* Europak garestituta erosten zituen. Adibidez, Italia makina baten premian dago. Nora joanen da bila? Bada, inora joatekotan, USARA, hau baita gerratik tente irten den erresuma bakarra.

USAN 3.500 dolar balio duen makina bat erosten du. Baina, nola Italiak dolarrik ez dadukan, urrez ordaindu beharra daduka derrigorrez, eta, lehenago arau horri jarraituz,

3.500

100 ontza urre emango dizkio.

35

Eta hau Italiarentzat alukeria\* bat dela dudarik ez, zeren, inflazioa kontatu izan balitz, ehun ontzen orde 50 bakarrik bidali beharko baitzuten (% 200-eko inflazio batekin, urre ontza batek 70 dolar eta ez 35 balio du eta).

Ez da harritzekoa, beraz, urre guztia Fort Knox-era ziztuan\* joatea: 1948.ean munduko erreserban % 71 USAN zegoen.

d) Europa dirurik gabe gelditu zen, eta hazkuntza baten gurarian.\* Bestalde, USAk European zedukan merkaturik onena. Marshall laguntza etorri zen orduan, baina bi baldintza nagusiren pean:

— nahitaez, laguntza horrekin erosiko ziren produktuek lpar Amerikarrak izan behar zuten.

— Europak amerikanoen inbertsioei ateak zabaltzeko behar zizkien.

Egoera honek 1958. urterarte iraungo du.

JOSETXO EZPELETA